



## TREBAKUNTZA 2011/09: DATAK, EGUNAK, URTEAK...

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \*Lezon, 2005eko **Ekainaren** 13an
2. \*Lekeition, 2007ko **irailak** 25ean
3. \*Osoko bilkuraren hurrengo batzarra irailaren **6an** izango da.
4. \***2005ko** abenduaren 7an hasiko dira herriko jaiak.
5. \*Lekeition, 2007ko abenduaren **8**
6. \*Aurten, Aste Santua **2.005eko** martxoaren 19tik 24ra izango da.
7. \***2007 urtean** ez zen diru partidarik onartu euskara ikasteko.
8. \*Abenduaren 12an, **asteazkenez**, egingo da bilera.

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Hilabeteak beti letra xehez (minuskulaz) idatzi behar dira.  
Ad. Lezon, 2005eko **ek**ainaren 13an (eta ez \**Ekainaren*).
2. Zenbakiak deklinatu behar badira, hilabeteari –aren gehitu behar diogu.  
Ad. Lekeition, 2007ko **irailaren 25ean** (eta ez \**irailak 25ean*).
3. Kontuz egunen zenbakiak deklinatzean!  
Ad. Osoko bilkuraren hurrengo batzarra irailaren **6an** izango da (eta ez \**6ean*).  
**ONDO DAUDENAK:** 1ean, 2an, 3an, 4an, 5ean, 6an, 7an, 8an, 9an, 10ean, 11n...  
**GAIZKI DAUDENAK:** \*1an, 6ean, 11an...

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



4. Kontuz urteen zenbakiak deklinatzean!  
Ad.: **2005eko** abenduaren 7an hasiko dira herriko jaiak. (eta ez \*2005ko).  
**ONDO DAUDENAK:** 2000ko, 2001eko, 2002ko, 2003ko, 2004ko, 2005eko...  
**GAIZKI DAUDENAK:** \*2000eko, 2001ko, 2002eko...
5. Gutunetan edo antzeko idazkietan forma hauek erabiliko dira:  
Ad.: Lekeitio**n**, 2007ko abenduaren 8**an** (eta ez \*Lekeitio... 8a)  
Ad.: Lekeitio**o**, 2007ko abenduaren 8**a** (eta ez \*Lekeitio... 8an)
6. Urteetan ez jarri punturik zenbakien artean  
Ad.: Aurten, Aste Santua **2005**eko martxoaren 19tik 24ra izango da (eta ez \*2.005eko).
7. Urtearen zenbakiaren ondoren “urte” hitza erabiltzen bada, derrigorrezkoa da puntua jartzea.  
Ad.: **2007. urtean** ez zen diru partidarik onartu euskara ikasteko (eta ez \*2007 urtean).
8. Asteguna ere zehaztu behar baduzu, hiru modu hauek dituzu:  
Ad.: Abenduaren 12an,  
**asteazkena/asteazkenean/asteazkenarekin**, egingo da bilera (eta ez \*asteazkenez).

\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: [gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org) (Imanol) eta [bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org) (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)